

EBALUAZIO-ESKALAK

1. maila IDAZMENA

	Gaizki	Eskas	Nahiko	Ongi	Oso ongi
Egokitasuna	Gaiari ihes egiten dio. Ez du erregistrorik bereizten. Ereduak lekuz kanpo erabiltzen ditu eta hitzen balio semantikorik ohikoenak ere ez ditu menderatzen. Idazketa erabat da desegokia.	Askotan egiten dio ihes gaiari. Zailtasun handiak ditu erregistroak bereizteko. Oker aukeratutako ereduei jarraitzen die askotan. Hainbat hitzek testuinguruaren arabera har ditzaketen balio semantikoak menderatzen ez dituenez, askotan desegoki erabiltzen ditu.	Gaiari noiz edo noiz ihes egin badiezaioke ere harira itzultzen da gehienetan. Badaki, oro har, bereizten erregistro-mota nagusiak: formala eta informala. Hala ere, batzuetan naturaltasuna apurtzen duten eredu finkoen erabilera atzemango da. Hainbat hitzek testuinguruaren arabera har ditzaketen balio semantiko guztiak menderatzen ez dituenez, desegoki erabil ditzake batzuetan.	Ez dio, oro har, gaiari ihes egiten. Badaki bereizten erregistro-motak: nori eta zein xedez zuzentzen zaion, zein testu-mota eta testu-era den... Ez du eredu finkorik erabiltzen, erabateko autonomiarik ez badu ere. Hainbat hitzek testuinguruaren arabera har ditzaketen balio semantikorik gehienak menderatzen dituenez, nekez huts egiten du.	Ez dio gaiari inoiz ihes egiten. Ondo daki erregistroak bereizten. Naturaltasunez eta autonomia osoz idazten du. Testuinguruaren arabera hitzek har ditzaketen balio semantikorik gehienak menderatzen ditu eta ironiaz eta umorez idazteko gaitasuna ere ageri du zenbaitetan.
Koherentzia	Ideiak nahasian agertzen dira: ez dago ez antolaketa, ez garapenik. Esanahia zeharo ilunduta ageri da.	Diskurtsoaren egitura eta pasarteen antolaketa ez zaizkio testuari egokitzen. Batzuetan, ez ditu zenbait ideia nagusi jasotzen.	Diskurtsoaren egitura eta pasarteen antolaketa egokitu egiten zaizkio testuari; hala ere, batzuetan, egokitzeko zailtasuna izaten du. Testua hari logiko baten segidan dago eraikia. Batzuetan zenbait koherentzia-arazo ditu, bigarren mailako ideiak garatu behar dituenean. Horrek, hala ere, ez du irakurketa jasangaitz bihurtzen.	Diskurtsoaren egitura eta pasarteen antolaketa, gehienetan, testuari egokitzen zaizkio. Ez du zailtasunik, ideia konplexuren bat edo beste azaltzerakoan izan ezik.	Diskurtsoaren egitura eta pasarteen antolaketa erabat egokitzen zaizkio testuari. Ideia konplexuak adierazteko ere ez du aparteko zailtasunik. Irakurleak ondo ulertzen du, kolpetik irakurrita.
Kohesioa	Ez da ulertzen lehen irakurraldian. Ez du ia loturarik erabiltzen.	Diskurtsoaren haria behin baino gehiagotan galtzen du irakurleak, oker erabiltzen ditu-eta oinarritzko testu-antolatzaile, kohesio-forma eta puntuazio-markak.	Gehienetan, badaki ideia nagusiak eta azalekoak bereizten eta lotzen, esaldi motzak eta oinarritzko testu-antolatzaile eta kohesio-formak erabili. Oinarritzko puntuazio-markak, gehienetan, ongi erabiltzen ditu. Hala ere, zailtasuna izan dezake esaldi luzeak lotzeko.	Oro har, badaki ia kohesio-forma gehienez baliatzen eta, ondorioz, ez da galtzen testuaren haria. Dena den, arazoa izan dezake esaldi konplexuren bat edo beste lotzerakoan. Oinarritzko puntuazio-markak ongi erabiltzen ditu.	Badaki unean uneko kohesio-forma aukeratzen eta erabiltzen eta, ondorioz, ez da galtzen diskurtsoaren haria. Ideia konplexuak lotzerakoan ere ez du aparteko zailtasunik. Ez du eragozpenik oinarritzko puntuazio-markak ongi erabiltzeko.
Aberastasuna	Arazo handiak ditu testuak eskatzen duen hedadura emateko. Oso esaldi motzak erabiltzen ditu. Ideien zenbatekoaren eta egitura nahiz hiztegiaren pobrezia eta erdal kutsua erabatekoak dira.	Arazoak ditu maila honetako testu-mota eta testu-erak garatzeko. Eta ez ditu eskatzen duten neurrian idazten, ideia nahiz egitura eta hiztegiari dagokienean. Oso nabaria da erdal kutsua.	Maila honetako testu-mota eta testu-era gehienak, oro har, idazten badaki. Hala ere, molde bereko jostakerez baliatzeko joera erakutsiko du batzuetan eta ideien nahiz egitura edota hiztegiaren zenbatekoa ikusita antzeman egiten zaio oraindik ere badituela zailtasunak testua dagokion neurrian osatzeko. Nabaria da, oraindik ere, erdal kutsua, testua zuzena izan badaiteke ere.	Maila honetan zehaztutako testu-mota eta testu-erak, oro har, idazteko gauza da. Testuak aberatsak dira ideien nahiz egitura edota hiztegiaren ugaritasuna dela bide, noiz edo noiz testuinguruak gehiago garatzeko aukera eman badezake ere. Erdal kutsua noizbait suma liteke.	Maila honetan zehaztutako testu-mota eta testu-era guztiak idazteko gauza da. Testuak aberatsak dira, ideien nahiz egitura edota hiztegiaren ugaritasuna dela bide. Apenas du erdal kutsurik.
Zuzentasuna	Maila morfosintaktikoan, hiztegian eta ortografian ageri zaizkion hutsegiteen zenbatekoak eta nolakoak zeharo iluntzen dute esanahia. Idazketa kaotikoa.	Maila morfosintaktikoan, hiztegian eta ortografian ageri zaizkion hutsegiteen zenbatekoak eta nolakoak idazlanari erabateko kaosaren itxura ematen ez badiote ere, ugariak izango dira hutsegite koiunturalak eta, halaber, sistematikoak, baita egitura sinpleenetan ere. Oker erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio markak.	Maila morfosintaktikoan egindako hutsegiteek ez dute esanahia eragozten. Egitura konplexuetan (erlatibozkoetan...) hutsegite koiunturalez gain, oraindik ere, suma liteke hutsegite sistematikoren baten edo besteren aztarna. Ikaslearen eguneroko kontestu ezagunetara mugatzen den hiztegiaren ezagutzak termino orokor eta arruntez (jende, gauza...) eta erdarakadez baliatzen bultzatuko du ñabardurak adierazteko unean. Zuzen erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio-markak, batzuetan hutsegiteren bat egin badezake ere. Hutsegiteak, oro har, koiunturalak izango dira, eta ez dute esanahia ilunduko.	Zuzen erabiltzen ditu, oro har, maila honetako egiturak. Noizbehinka ageri zaizkion hutsegiteak ez dira sistematikoak. Noiz edo noiz erdarakadaren batez balia daiteke. Zuzen erabiltzen ditu, oro har, ortografia eta puntuazio-markak.	Zuzen erabiltzen ditu maila honetako egiturak. Erabilitako erdarazko hitzak jatorrizko hitzuen onartzeko modukoak dira. Ortografiaz eta puntuazio-markez ere zuzen baliatzen da.

EBALUAZIO-ESKALAK

2. maila IDAZMENA

	Gaizki	Eskas	Nahiko	Ongi	Oso ongi
Egokitasuna	Kontestuari ez dio gehiegi erreparatzen; zer idatzi nola idatzi baino gehiago kezkatzen du-eta. Nekez asmatuko du erregistroarekin, eta buruz ikasita dituen hainbat egitura lekuz kanpo erabiliko ditu.	Gaia ezaguna eta bere interesetik hurbilekoa bada ere zailtasunak izango ditu erregistroa aukeratu eta egokitzeo, eta zenbait eredu modu desegokian erabiliko ditu.	Gaia bere mundu-ezagutzatik eta bere interesetik hurbilekoa denean ez du arazorik bere adierazpena egokitasunez egiteko. Nori zuzentzen zaion, zertarako, eta abar... kontuan izanik idatzizko testuak behar duen formaltasun-mailaz egingo ditu. Hala ere, zenbait idatzitan ereduaren erreferentzia atzemango zaio, idatziak artifizial kutsua izango duelarik.	Erabilera-esparruaren arabera (famiartekoa, akademikoa, eguneroko harremanetakoa, ...) testuari dagokion erregistroa aukeratzeko ez du arazorik. Ez da ereduaren menpeko izango eta idatziaren antolaketan eta egokitasunean gubitxan huts egiten du.	Erabilera-esparruaren arabera (famiartekoa, akademikoa, eguneroko harremanetakoa, ...) badaki erregistro egokia aukeratzten, baita xedearen araberako egokitasunak egiten ere. Umorea, ironia, poza, eta abar adierazteko gaitasuna ageri du.
Koherentzia	Zailtasun handia du testuak antolatzeo garaian, ez baitaki ideia nagusiak eta azalekoak bereizten eta lotzen.	Diskurtsoa hari nagusi baten inguruan antolatzen du soil-soilik; baina, hala ere, izan ditzake nahasketa sortuko duten zenbait hutsune.	Diskurtsoaren egitura eta pasarteetan antolaketa egokitu egiten zaizkio, gehienetan, testuari. Badaki ideia nagusiak eta azalekoak bereizten eta lotzen, eta saiatzen da gaiak eskatzen dituen xehetasunak ematen ere. Hala ere, batzuetan, nahasia da diskurtsoaren haria; baina testua oztopo handirik gabe irakurtzen da.	Diskurtsoaren egitura eta pasarteetan antolaketa egokitu egiten zaizkio testuari. Ideia nagusiak eta xehetasunak bereizten ditu. Ideia konplexuren bat adieraztean, zailtasunen bat izan dezake, baina ulergarritasuna bermatua dago.	Diskurtsoaren egitura eta pasarteetan antolaketa egokitu egiten zaizkio testuari. Erraz irakurtzen da. Gauza da testu luze samarrak eta ideia konplexuak adierazteko.
Kohesioa	Oker erabiltzen ditu irakurketa oztopa dezaketzen testu-antolatzaile, kohesio-forma eta puntuazio-markak. Ez da ulertzen lehen irakurraldian.	Gehienetan, ideiak azaltzeko, ez ditu egoki erabiltzen testu-antolatzaileak, ezta errepikapena saihesteko kohesio-formak ere. Puntuazio-markak ere zenbaitetan oker erabiltzen ditu. Testuan gaizkiulertuak daude.	Gehienetan, egoki erabiltzen ditu ideia nagusiak eta azalekoak lotzeko testu-antolatzaile, kohesio-forma eta puntuazio-markak, baita xehetasunak adierazterakoan ere.	Diskurtsoaren haria ez da galtzen, egoki erabiltzen ditu-eta testuari osotasuna eta batasuna ematen dioten loturak.	Ideiak ondo uztartuta daude, badaki-eta ongi erabiltzen testu-antolatzaileak, kohesio-formak eta puntuazio-markak.
Aberastasuna	Arazo handia du testuek eskatzen duten hedadura emateko. Testuak laburrak eta sinpleak egingo ditu eta lexikoa oso urria izango du.	Arazoa du maila honetako testu-mota eta testu-erak garatzeko. Deskribapenak oso sinpleak izango dira, lexiko urria erakutsiz; instrukzio eta kontaktetaren ere ez du trebetasun handirik erakutsiko eta azalpenak ez ditu testu-motak eskatzen duen neurrian idatziko.	Maila honi dagozkion testuak idazteko ez du aparteko oztoporik izango. Hala ere, gaia oso ezaguna ez duenean era edo molde bereko egitura, esapide eta hitzak erabiltzera mugatuko da. Erdal kutsua ere har dezakete kasu hauetan, eta idazlanak sinpleak eta pobre-itxura dutenak gerta daitezke.	Maila honi dagozkion testu-mota guztiak idazteko gauza bada ere, egituren eta lexikoaren aberastasuna mugatuagoa izango du gaia ezezaguna gertatzen zaionean, testu laburragoak sortuz.	Maila honi dagozkion testu-mota guztiak sortzeko gai da. Arrakastaz lortzen du testu luze eta konplexuak antolatzea. Horretarako errepikapenak, itzulinguruak, birformulazioak, autozuzenketak, hizkuntz klitxeak eta abar erabiliko ditu. Lexikoaren eta egituren aldetik aberatsak izango dira eta ez dute erdal kutsurik izango.
Zuzentasuna	Maila desberdinetako akats ugari egiten ditu eta egitura sinpleetan ere hutsuneak nabaritzen zaizkio. Oso nekez eta oztopo handi eta ugariak gaituko ondoren ulertuko da idatzia bere osotasunean.	Nahiz eta gaia ezaguna izan, akatsak izango ditu maila morfosintaktikoan zein lexiko eta ortografian. Orokorrean ulertuko da idazlanaren haria, baina ideia eta egitura konplexuak ez dira behar bezala islatuta egongo.	Testua luzea denean eta egitura konplexuak erabiltzean maila morfosintaktikoan egiten dituen hutsegiteek ez dute esanahia eragotziko. Bere mundu-ezagutzatik hurbileko gaien inguruko lexikoaren ezagutza zabaldu; hala ere, zenbaitetan erdarazko hitza euskaratu egiten du, eta euskarazko hitz jatorra baliatzen bezala erabiltzen. Zuzen erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio-markak, zenbaitetan hutsegiteren bat egin badezake ere.	Zuzen erabiltzen ditu, oro har, maila honetako egiturak. Ideia konplexuren bat adierazi nahi duenean bakarrik egiten ditu hutsegiteak. Gehienetan zuzen erabiltzen ditu ortografia eta puntuazio-markak.	Maila honetako testu-motak sortzean alderdi morfosintaktikoaren erabilera zuzena egingo du. Ortografia eta puntuazio-markez ere zuzen baliatzen da eta, lexiko handia izateaz gain, beronen erabilera egokia egiten du.

EBALUAZIO-ESKALAK

3. maila IDAZMENA

	Gaizki	Eskas	Nahiko	Ongi	Oso ongi
Egokitasuna	Nekez asmatuko du gaiak, kontestua eta abar eskatzen duen erregistroarekin. Buruz ikasitako egitura eta klitxeetara joko du besterik ezean.	Zailtasuna izango du kultura orokorreko zenbait gairen inguruan erregistroa aukeratu eta egokitze eta zenbaitetan eredueta jo behar izango du, idatzia ondo burutuko badu.	Gaia kultura orokorraren mailaren eremuko izanik, bere mundu-egagutatik eta interesetik urrunekoa bada, zenbaitetan arazoak izaten ditu adierazi nahi duena egokitasunez adierazteko: alferrikako informazioa emango du, eta baita hitz desegokiak erabili ere, besteak beste, gaia guztiz menperatzen ez duelako. Bestelakoetan ez du aparteko arazorik izango kontestuari dagokion erregistro-mota aukeratzeko.	Ez du eragozpenik kultura orokorraren mailan kontestua araberatu testuari eta gaiari dagokion erregistroa aukeratzeko. Hala ere, gaia ezezaguna denean arazoak izan ditzake, baina adierazpen egokia izaten jarraituko du.	Ez du inolako arazorik izango kultura orokorreko edozein gairen inguruan eta edozein esparrutan erregistro egokia aukeratzeko.
Koherentzia	Zailtasun handia du edozein testu idatziz sortzeko eta, ondorioz, testu inkoharente eta loturarik gabekoak egiten ditu. Ez da egituraren aztarnarik antzematen.	Idea nagusiak adierazten ditu, baina zailtasuna du xehetasunak eta ñabardurak azaltzeko. Gehienetan, arazoa du diskurtso antolatuta eta josia egiteko.	Diskurtsoaren egitura eta pasarteetan antolatuta egokitu egiten zaizkio, gehienetan, testuari. Ondoreizten ditu ideia garrantzitsuak, azalekoak eta xehetasunak. Testua lehen irakurraldian ulertzen da.	Sortzen dituen idatzizko testuak ondo egituratuta eta antolatuta daude. Gai konplexuetan zailtasuna izan dezake, baina bermatua dago ulergarritasuna.	Diskurtsoa oso ondo antolatu eta garatzen du, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ondo bereiziz. Erraz irakurtzen da, nahiz eta gaia konplexua izan.
Kohesioa	Araza handia du pasarteak lotzen. Oker erabiltzen ditu testu-antolatzaileak, baita kohesio-forma oinarritzkoenak ere. Puntuazioan, hutsegite nabarmenak egiten ditu.	Gehienetan, pasarteak ez daude ongi lotuta: testu-antolatzaileak, kohesio-formak eta puntuazio-markak ez ditu ongi erabiltzen.	Gehienetan, ondo baliatzen ditu esaldi, paragrafo eta testu osoaren arteko loturak: testu-antolatzaileak, kohesio-formak eta puntuazio-markak. Puntuazioa, oro har, zuzena da, tarteka akatsen bat edo beste badu ere.	Ongi baliatzen ditu testuak eskatzen dituen testu-antolatzaile, kohesio-forma, puntuazio-marka eta abar.	Oso ongi erabiltzen ditu testu-antolatzaileak, kohesio-formak eta puntuazio-markak, baita kate anaforikoak ere (erreferentziak, elipsia...). ordezkapenak, elipsia...).
Aberastasuna	Araza handia du maila honetako testuek eskatzen duten hedadura emateko, hizkuntzaren ezagutza-maila eskasa delako.	Kosta egingo zaio maila honi dagozkion testuak sortzea. Azalpen eta argudioetan, batez ere, ez da gai izango esan nahi duena esateko, ez baitu adierazpide nahikorik izango, eta aipatu testu horiek ez ditu testu-motak eskatzen duen neurrian idatziko.	Maila honi dagozkion testuak idatzeko gai izango da eta hauek osatzeko erabiliko dituen ideia, egitura edota lexikoaren zenbaterakoak eta nolakoak hizkuntzaren ezagutza ona duela adieraziko dute.	Maila honi dagozkion testu-mota guztiak idatzeko gauza bada ere, elementu linguistikoaren eta lexikoaren aberastasuna mugatuagoa izango du gai espezializatua denean, testu laburragoak sortuz.	Kultura orokorreko edozein gairen inguruan testuak sortzeko gai da. Arrakastaz lortzen du testu luze eta konplexuak antolatzea eta bere mundu-egagutatik hurbileko gai espezializatueta ere nabari da lexikoaren eta egituren aberastasuna.
Zuzentasuna	Maila desberdinetako akatsak sistematikoki azalduko dira bere idatzietan, idatzia ulergaitza eginez.	Maila morfosintaktikoan zein lexiko eta ortografian egingo dituen akatsak hainbat egitura eta forma ez dituela ondo menperatzen adieraziko dute. Idazlanaren haria ulertu ahal izateko ahalegin berezia egin behar izango da eta birritan edo irakurri.	Maila honi dagozkion testuak idazterakoan ez du alderdi morfosintaktikoan aparteko arazorik izango, zenbaitetan adierazi beharrekoaren konplexutasunagatik edo, sintaxiaren arloko akatsen bat egiten badu ere. Dena den, ez du akats sistematikorik egingo. Lexiko aberatsa du erabiliko dituen sinonimo eta birformulazio eta abarretan ikusi ahal izango denez, eta ez du ortografia eta puntuazio-marken erabileran oztoporik. Gertatzen diren hutsegite bakan horiek gairen eta egoeraren berezitasunei zor zaie.	Zuzen erabiltzen ditu maila honetako egiturak, alderdi morfosintaktikoaren ezagutza ona erakutsiz. Ortografia eta puntuazio-markez ere zuzen baliatzen da eta gaiari dagokion lexiko zehatzaren erabilera zuzena egiten du.	Ez du inolako arazorik izango kultura orokorreko edozein gai, baita bere ezagutza-mundutik hurbileko gai espezializatuak ere, zuzen adierazteko. Alderdi morfosintaktiko, lexiko eta ortografia eta puntuazio-marken erabilera zuzena eta zehatza egingo du.

EBALUAZIO-ESKALAK

4. maila IDAZMENA

	Gaizki	Eskas	Nahiko	Ongi	Oso ongi
Egokitasuna	Testu desegokia eta iluna sortu du, ez baitu kontuan hartzen nori zuzentzen zaion, zertarako eta gaiaren nolakoa. Ez daki idaztean sortzen diren zailtasunak saihesten, estrategia komunikatibo desegokiak erabiltzen baititu. Zaila da testua lehen irakurraldian ulertzea.	Sortu duen testua ez da erabat egokia, zenbaitetan hartzaillea, helburua eta gaiaren ezaugarriak ez baititu aintzat hartzen. Horrez gain, pasarte batzuk ez dira lehen irakurraldian ongi ulertzen.	Testu argia eta egokia sortu du, betiere, kontuan hartuz nori zuzentzen zaion, zertarako eta gaiaren nolakoa. Lehen irakurraldian erraz ulertzen da. Ondo saihesten ditu, estrategia komunikatiboak egoki erabiliz, euskal prosa idazteak dituen zailtasunak, bai kultura orokorrari dagozkion gaietan, baita goi-mailakoari dagozkionetan ere.	Oso testu egokia osatu du eskatutakoari erantzunez. Lehen irakurraldian oso erraz ulertzen da, eta oso egokiak dira erabiltzen dituen estrategia komunikatiboak.	Maisuki garatutako testua sortu du hartzaillea, xedea eta gaiaren trataera kontuan hartuz. Gai orokor nahiz espezialduetan estrategia komunikatiboak oso egoki erabiltzen ditu.
Koherentzia	Testuak ez dio eskema logiko bati jarraitzen, eta nabarmenak dira arrazoirik gabeko atzera-aurrerak, informazio-jauziak, errepikapenak eta nahasketak. Ondorioz, agerikoak dira kontraesanak, eta zaila da testua lehen irakurraldian ulertzea.	Testuak hari logiko bati eusten badio ere, zailtasuna du ideiak zehaztasun nahikoaz adierazten. Zenbaitetan hizkuntza-baliabideak estrategikoki erabiltzeko eragozpenak ditu, eta batzuetan kontraesanak nabarmenak dira.	Testuak progresio tematiko logikoa eta eraginkorra du, eskema argi batean oinarritua dago-eta. Ideiak zehatz eta argi adierazten ditu, hizkuntza-baliabideak estrategikoki erabiltzen ditu-eta. Ondo bereizten ditu ideia garrantzitsuak, azalekoak eta xehetasunak. Ondorioz, kontraesanik gabekoa da, eta ez du ideia arrotzik edota informazio-jauzi edo -hutsunerik, ez nahasketarik, ez errepikapenik, ezta arrazoirik gabeko atzera-aurrerarik ere. Lehen irakurraldian ulertzen da.	Testuaren eskema oso argia da, eta oso ondo bereizten ditu ideia garrantzitsuak eta azalekoak. Gaia espezialdua bada ere, lehen irakurraldian erraz ulertzen da. Hizkuntza-baliabideak oso ondo erabiltzen ditu ideiak zehaztasunez adierazteko.	Testuak oso eskema logiko eta argia du, eta maisuki erabiltzen ditu hizkuntza-baliabideak. Ideien garapena guztiz egokia da, eta gaia konplexua izan arren, oso erraz irakurtzen da.
Kohesioa	Testu-antolatzaileak ez ditu ongi erabiltzen, eta beraz, esaldien eta paragrafoen arteko lotura desegokia da. Puntuazio-marken erabilera ere huts egiten du, eta honek testuaren ulergarritasunari eragiten dio.	Zenbaitetan, desegoki erabiltzen ditu testuko hizkuntza-unitateak (esaldiak, paragrafoak eta testua) lotzeko kohesio-mekanismoak eta puntuazio-markak, eta horrek interpretazio okerrak edota anbiguotasuna eragiten ditu.	Egoki erabiltzen ditu puntuazio-markak eta kohesio-mekanismoak —batez ere, erreferentziak eta konexioa—, eta egoki lotzen ditu testuko hizkuntza-unitateak (esaldiak, paragrafoak eta testua). Testua anbiguotasunik gabe ulertzen du irakurleak.	Oso ongi erabiltzen ditu puntuazio-markak, eta kohesio-mekanismo anitzez baliatzen da hizkuntza-unitateak (esaldiak, paragrafoak eta testua) oso egoki lotuz.	Maisuki erabiltzen ditu puntuazio-markak eta era guztietako kohesio-mekanismoak. Ondorioz, oso egokia da hizkuntza-unitateen arteko lotura (esaldiak, paragrafoak eta testua).
Aberastasuna	Ez du baliabiderik nahi duena eraginkortasunez, zehaztasunez eta anbiguotasunik gabe adierazteko. Ez du egitura landurik erabiltzen, ezta lexiko aberatsik ere.	Hizkuntza-bitarteko mugatua izanik, pasarte batzuetan zehaztasun-falta nabarmena da, eta zenbaitetan, nahi duena eraginkortasunez adierazteko zailtasuna du. Lexikoa aberasteko bitartekoak ere urriak dira (sinonimia, antonimia...)	Hizkuntza-bitarteko zabala erakusten du, eta ez du mugarik malgutasunez, eraginkortasunez eta zehaztasunez adierazteko adierazi nahi duena, gauzak nabarmentzeko edota anbiguotasuna saihesteko. Lexiko aberatsa erabiltzen du.	Baliabide ugari erabiltzen ditu, esaldi eta pasarte oso zehatzak eta landuak osatuz, anbiguotasuna saihesteko, nahi duena adierazteko edota nabarmentzeko. Erabiltzen duen lexikoa oso aberatsa da.	Egitura oso landuak eta borobilak osatzen ditu, eta maisuki erabiltzen ditu hizkuntza-baliabideak nahi duena zehatz-mehatz adierazteko. Bere espezialitateko gaian oso lexiko aberatsa du.
Zuzentasuna	Akats morfosintaktikoak egiten ditu (aditza, sintaxia, morfologia, deklinabidea...), eta esaldi luzeetan lotura desegokiak. Puntuazio-marken erabilera okerra egiten du, eta ortografian ere akatsak nabarmenak dira.	Zenbaitetan ortografia-akatsak egiten ditu, eta esaldi eta pasarte luzeetan hutsuneak ditu morfosintaxian. Puntuazio-marken erabilera batzuetan ez da zuzena, eta lexikoan ere huts egiten du, bereziki, bere espezialitateko gaietan.	Alderdi morfosintaktikoan ez du aparteko arazorik, eta ondo gauzatzen ditu bai testuaren konexioa, testu-antolatzaileak behar bezala erabiliz, bai izen-nahiz aditz-kohesioa. Idazketan, ez dago ortografia-akatsik, eta ez du oztoporik puntuazio-marken erabilera. Bere espezialitateari dagokion lexikoa zuzen erabiltzen du.	Oso ondo menperatzen ditu gramatika-arauak, eta oso ondo gauzatzen ditu bai testuaren konexioa, bai izen-nahiz aditz-kohesioa. Puntuazio-marken erabilera oso egokia da. Bere espezialitateari dagokion lexikoa zuzen eta zehatz erabiltzen du.	Oso ondo menperatzen ditu gramatika-arauak, eta maisuki gauzatzen du bai testuaren konexioa, bai izen- eta aditz-kohesioa ere. Bere espezialitateari dagokion lexikoa zuzen eta zehatz erabiltzen du.